Epalla-Marzo
14
Egubaztena-Miercoles
Bilbao, 1934

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 irko. iru
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urte
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.635 zenbakija

Egunekua

Aldun baten ibiltaldijak

Bilbao'n ixan dogu Prieto, zetan etoři dan eztakigun-aŕen. ¿Madrid'eko opoŕla rijen bilduŕaŕen onatu ete-yaku gero? Mutil zuŕa dogu sosolisto ori. Carlton jatetxe dotorian egotez dago, lan-barik dabiltzazan langiliai enbidija emoteko-edo. ¡Arek jango dauzan olosko-iztaŕak! ¿Eta zegaŕik ez, ba? ¿Langilien aldez ainbeste lan egiñiko gixona ezta ala? Lenagoko lanean sarija atzemon darua.

Eŕeboluziñua gertuten etoři dalakuan dagoz batzuk, baña ori itxi bide dau. Sakela baterik danian eztago eŕeboluziñorako gogorik. Beste zeregintxu batek etoři -eragin dautso.

Jakingo dozube jakin Madrid'en eztala agertzen izpaŕingirik opoŕketea egin daroyela iraŕlarijak. Eta uri aundi a ezin itxi, ba, izpaŕingi-barik. ¿Zelan uts ori beti daikian? "El Liberal" arantza eruanaz. Prieto'ren bijotz samuŕak ezin dau ezpiaŕik jasan.

¿Langiliak zer esango daben? ¿Izpaŕingirik argiŕaldu eztedin opoŕketea eztabe egin, ba? Bai, egija dozu. Baña Prieto'ren ardureak zapalduko dauz langilien asmo oŕeik. Ixan be ixan olakoxiak dira ludiko gauzak: diru-kontubetan eztago sosolistorik ez koplarik.

Ake letxietakuak opoŕketea egin ebanian Prieto'k zabaldu ba'eban antzeko bat zer esan aundijak entzungo ziran. Orain egin daruana baŕdin baŕdiña da, baña iñok eztuatik esango. Ixan be gixonik geyenok erdi tentelak gara.

Izparringi bat gitxijago

"Tierra Vasca" etzan argiŕaldu atzo. Tamalez entzun dogu izpaŕ au, geure euzko-luŕ onetan biaŕekuak diralako euzko -izpaŕingijak. Euzko-Ekintza'koen egunerokua zan eta edeřto ekijan geure azkatasunaren aldez.

Izpaŕingi ori zegaŕik eztan argiŕalduten eztakigu. Batzuk gauza bat bestiák beste bat. Euzkotaŕok alegindu gadixan lenbailen uŕten dedin, emen agertzen diran atzeřiiaŕ izpaŕingijak baztertu dagiguzan. Oneik eztira ilten, ba, oneik.

Aberri-Eguna

Urtero ospatuko dogun jai abeřkoi au, aurten Gazteiz'en ospatuko dogu. Olantxe erabagi dabe geure agintarijak. Arira datoř ixan, be, Araba edeřaren uri nagosi oŕetan jai ospetsu bat egiŕia. Geure azkatasunaren areyo ziŕelak arduraz dabiltz euzkotaŕtasunari kalterik andijenak egiřeko-ta.

Ikeratu dauz abeřtzaletasunak eta alegiñak egin daroez ur garoi oni andapara gogoŕak jaŕteko. Abeři-Eguna'k on-onak yakuz berein abeřtzale batzen diralako eta olantxe erakusten emoten dogulako geure eři onen bixi-naya.

Gazteiz'ko uri txukunak gomuta andijak daukoz geuretzat. Jakintsuben urija beti ixan da, eta geure lagi-zaŕak, be, aldezle ontxubak euki ebezan. Moratza ixentautiaz aski bedi.

Eta abeřtzaletasunak berak be oidalako jaboliak ixan dauz. Tamalez euzko-gogua apuřtxu bat ostenduta dago. Azala uŕatu biaŕko yako baŕuko edeřtasuna ikusi gura ba-dogu. Lořtuko dogu, andijagorik be jadetsi dogu-ta.

Beřpizkunde-Igandez amaikatxu euzkotaŕ erduko dira uri aretara, antxiñatik dabiltz geure abeřkidiak ibiltaldi ori gertuten-ba.

Etsai pestiak aldendu gura dauskuben luřalde oři erakusten emon dagijogun geure bijotzeko zintzotasuna. Anařasunak gaizkatuko gauz.

"Libe",ren antzezkixunak

Geure Irakasle bakaŕa ixan zan Sabin 'an antzezti edeř au ikusten amaikatxu gixaseme ixan dira. Antzokija ganezka eguan iru egunetan, baña oindikaŕan askotxu geratu dira antzezti ori ikusi-barik.

Mungia'ko gudaketean jazon zan jazokun bat gaitzat aŕtuta, antzezti gorengua egin euskun Sabin azkaŕak. Gero Sota jaunak atondu ta edatu dau. Lan sakon eta abeřkoya.

Antzezkixun gustijetan notin asko ixan dalako, ikus-barik geratu diranentzat baŕiro antzeztuko dabe. "Oldargi,,'ko mutil zolijak orixe erabagi dabe, beintzat. Oŕetarako Joseba deunaren eguna autu dabe. ¿Egun ona ezta? ¡Bai orixe!

Jai ospatsuba ixaten yaku Joseba deunaren eguna, etxe bat eztagolako Joseba edo Joseba Mirena ixen barik.

Egun oŕetan, beraz, aŕatsaldeko irura eta erdijetan eta saspiretan antzezkixun bi ixango dira. Baña zuŕ ibiłi bediz ikusi gura dabenak, saŕereak beriala amaŕuko diralako.

"Euzkerea"

Aldizkingi au lasteř agertuko yaku, baña zelan gero. Oi zelako azal dotoria daukan eta zelako lan sakonakaz ornidu daben! Sekulako aldizkingija eratu dabe. Biaŕekua zan, abeřijan diran gixonik gorenguenak atzaldu dagiskubezan euren asmuak eta gogayak. Orain aŕte Bizkaya'n agertu eztan lango aldizkingija dogu "Euzkerea". Ikeratuta geratuko dira ikus ten dabenak ikusi.

Eresi-atalak, argazkijak, euzkeratzazzo idazlanak eta abaŕ. Orainguan asetuko dira abo xurijenak be.

¡Ai onek amerikarrok!

Baŕabasak daukez oŕeik, Txeřenari berari be akaŕzak eratsiko leuskijez. ¿Zer dan? Ganorabakokeri bat, besterik ezin ixan dařekelako amerikaŕak bidekurtzera datořzanian.

"The National geographic magazine" eztozu ezagutuko, ¿ezta? Oŕegatik etzadi lotsatu, ezta ludija galduko ta. Bai baña inorante bat nazala esango dauste. Itxi egijezu ori diñuanai, tentel batzuk baño eztira-ta.

Aldizkingi ori eskuratu dot, eztakit zelan eta nondik. Igazi zan ileko zenbakija ikusten neubilala ikusi, zelako baŕegaŕikerija auŕkiřu neban. ¿Zer zan? Argazki edo potograpi baten lau neskatil egozan eta laurak "Mantón de Manila" edo olakuakaz jantziřa. Buruban ostera laŕosa dotoriak eukezan. Euren erdijan gaste bat eguan, "pilarmonikia" edo inpernuko auspua joten. Eta argazki aren azpijan izki onexek: "The transplanted basques preserve their folk customs" Edonok uleřtuko dau zer esan gura daun! Aŕanotan! Sekulan etxuagu Ikusi euzko-luŕaldian olako mantoi dotoriakaz eta ulietan laŕosak dindiliska daukezala, Andalucia'ko ekandubak ziralakuan gengozanok, okeř uste geban.

Amerikataŕak diñoenez euzkotaŕak be olakoxe ořurak daukez. Eta Amerika'ra juan ostian, be, ořura oŕeik ondo baño obeto jaboten doguz.

"Magazine" edo aldizkingi oŕek monumentu bat meresi dau. Uřenguan be idatzi biaŕ-ixango dau: sixteen pagez of illustrations in full color.

¡Noz edo noz!

Oraintsubengo baten Arenal'ean ziaŕ niñoyala lekeřiaŕ lagun bategaz auŕkiřu uintzan eta lepuan juaz diñotsat:

—Kaxo; zer baři andik-edo...

—¿Zer nai dok egotia, ba! betiko lez.

—Bai, ori egija dok. Au beti baŕdin -baŕdin; uřtiak juan, uřtiak etoři ta ezer bez. Axe bai, dana uri baketsuba, au ezta ez, ezeren bilduřik, ez komunista, socialista, anarkista, ez... inpernuko diabruenik; bakaŕ-bakaŕik "Zerdiño "ta bere lagun oskiłak lantzian-bein egiřen dabezan zapokerijena.

¿Txo, ta zer eretxi eutsazun lengo igan dian "Gora-Buru' antzokijan jazo zanari? —diñotsat ondiño be.

—Egon adi ixilik: andija jazo be, egin zan gero. Iñoiz baxen antzeřki edeřenetaŕikua antzeztu ta antzokija erdiraño bakaŕik notiñez bete. Lotsaŕija dok ori Lekeřtio baterako.

—Ia, abeřtzaletasuna baño eztala, eztozube esaten ba, uri ořtan? Auteskundiak edo botasiñoyak eltzen dirianian 1.700 autaŕki edo boto batzia bakaŕik dala uste al'dok abeřtzaletasuna?

Ori gauza gitxija dala-ta nago. Nayago neuke nik auteskundietan 1.700 autaŕkiren ordez 800 bakaŕik batuko ba-gendu, baña, euron autaŕkijan jaubiak benetako abeřtzaliak ixan dařtezala.

Zer balijo dabe ainbeste autaŕkik, zinduak ixan biaŕian ustelak ba'dira?

Nun da ořtik, esaten dan beste abeřtzaletasun? Nun ain abeřtzale zintzuak dirala esaten daben mutil gaste ta bai, emakumiak, be? Ala, abeřtzaletasuna zer dala uste dogu, edonoz. ¡Gora Euzkadi azkatuta! didaŕ egiřia bakaŕik?

Zenbat obago ixango litzake ¡didaŕ edeř au! gure espan loyetan gitxiago erabiliko ba-gendu ta lan geyago egin didaŕ ori ainbat lasteřen egi biuřtu dedin.

Zer balijo dau "ni abeřtzale zintzuanaz" norberak esaŕła eta "Gora-Buru" antzokijan antzeřki edeř bat euzkeraz ¡geure izkuntza edo berbeta gozo ta edeřean! antzeztuten dagozan biřařtian—"doyala ama Antoni nai ba'yok teatrura"—esanda norbera "ziñera" juatiak?

Ori al'da abeřtzale baten zeregiña? Nor beren asaba zaŕen izkuntza bigun ta eztitsuba, aldeřdi batera jauřti ta ziñeko eřdera txabakiña entzuten poz-pozik juan ala... ¡Erantzun, erantzun, oneri iřaunori!

—Bai, egi andija dok ik diñokana—diñost—eneban uste ain txaŕto eguanik gure urija abeřtzaletasunatzaz, baña, apuř bat oldoztu edo pentsaten asi ezkero lasteř arin igarten dok bai, utsa dala...

Txo, ija aztu yatan — diardu—: Baři onek bai, poztuko zařuzana.

—Esaidak arin poztutekua ba'da.

—Lenago ba-dakik ondo be, zer egiten genduan Euzko-Batzokijan; batzuk emen iařita ganorabakokerija esaten, beste batzuk aruntzago jokuan eta... oŕelan.

Orain ostera, batzen gařuzak gaste gustijok "bilaŕa" dagon tokijan eta lantzian batek tipi-tapa irakuřten yok, batian Euzko-edestija, bestian euzkel-iztija edo gramatikia, EUZKADI eguneroko idazkijak, aldizkingi edo eřebista abeřtzaliak bai, euzkerazkuak eta bai, eřderazkuak; gero, irakuřitakua ondo baño obeto azaltzen dauskube geure ařtian dirian bi edo iru mutil azkaŕek eta gu poz-pozik gelditzen gara zer edo zertxu ikasten dogula-ta.

—Txo, ezeik esan guzuřik. Ain aldakuntza andija era batera? eztotzut ziñistuten.

—Bayetz, ba, egija dok; ziñistu egidak —diñost.

—Ori egija ba'da asko poztuten nok ¡zelan ez ba orixe ixan ba-dok neure betiko amesa!... Azkenian be, bete dok ba.

Euzkadi dala euzkotaŕ gustijon abeřija; zelan ostu euskuben bai, France'k eta bai España'k geure azkatasuna; zer nai dauan Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa'k esan; zein bide dau geure Abeři maitia aŕotzen atzapařetatik gaizkatuteko artu biaŕ doguna... onetxek eta beste ainbat gauza geyago ondo ezagututia euzkotaŕ gustijok, orixe da aspaldi ontako neure naya, ta ez gastiak itsumustuan euki, batzuk esaten daben iez, "iru edo lau egon ezkero dakigunok naikua da". ¡Ori iñoiz bez!

¡Ze edeŕa ixango litzaken euzkotaŕ gustijok edonon auřian tipi-tapa oř goyan diñodazan gai gustijak esaten ba'lekigu eta jakin onen ganera, adoretsu ta maitasun oso-osuaz maitatu!

Jaŕaťu, ba, asiťako bidiari ene lagun maťiak nekatu barik alan eta gustiz be, lan asko daukagu egiteko ondiño-ta.

Abeřijaren alde lana egiteko zer biaŕ dan? ¡Adoria! ta, geyagorik? ¡Bijotza! egijazko maitasunaz maitatuteko.

Oŕa oř, geugandik iñoiz be, aldendu barik erabili biaŕ doguzan gauza biaŕezko ta edeř, bi.

¡Adoria ta bijotza!

ZEŘTZETA.

"Aitona Gizagaxoa"

BASARRI

¡Au bilduŕa idazteko! Zorigaiztoko eztabaidak sortu dira izan ere gure aŕtean.

Beñere baño gogotsuago artzen genduan lumatxoa, gure euzkera edeřtzen da bikaintzen zijoalakoan. Orixe ondo zinistuta geunden gu Jaungoikoren izenean. Oleřkariak ugaltzen, antzeřki zoragaŕiak egunero argitara azaltzen, euzkal izpařingiak geure izkuntzaz ornitzen, asteroko euzkaldunak geitzen, euzkel-antzezalriak, saři pozez abilidadeak neurtzen, euzko ikastolak zabaltzen, milaka poxpoliñak batzen... Auek guziak ikusi ondorean, erdi zoro gu ere. Gogoř auřeratu ote ger ran oldoztua beti.

Jakintsu diranak, euzkeraren onerako ta aintzarako euren adimenak nekatu dituztela ikusiaz, gu ere, langile, basaŕitaŕ, ta ez jakin izanagatik, pozez ta aŕetaz alegindu gera aldeguna egiten. Ikasi zale danik ez bedi asi nere lanak irakurtzen: neronek daukat premirik aundiena ta.

¡Dana dala! Jakintsu ez izanaŕen, guk ere gentzaken añean egiten degu, ta ori egiten duanari geyagorik ezin eskatu. ¡Jesus mila bidez! ¿Gure lanak kalteko dirala?

Ez gera uste oŕetan sayatu, baña ala balitz, ixilduta konturik onena.

Sesiorik asko sortuko dalata nago. Altube jaunak aldeko asko izango du, baita aurkakoa ere. ¡Jaunak! oraingo ez naiz ni ezertan sartzen. Altube'ren lana irakurtzean nere iřitzi txiroak azalduko ditut.

Idazle batzuen lanak gogoř itundu naute. Altube'n liburua gaitzat aŕtuta. otz ikaraz josi dirate baŕena.

Euzkeraren eriotza gertu ote dan iragaři dute bat baño geyagok. Eřua idazleak ote duten gañera. ¡Au komerija!

Gure elea mendi goitaraño aldendu dala irakuři dedanean, Otaño'taŕ Kepa Mirena, artzai apal, ta eři oleřkari aundi aretzaz gogoratu naiz, ta bere, "Aiton gizagaixoa" izen buruzko oleřki sakona irakuřtzen jaři. Senide danak oyeratu ondoren, aŕats beltz luzeko ixiltasunean bere liburutxoa det lagun. EUZKADI'ko irakuřleai atsegin izango zayotelakoan, berak idazten ditut.

Udabeřiko usai gozozko
ilunabartxo batean,
Donostiyatik uřuti gabe
uri ontako partean.
baseřitikan nuntz datořen
bidetxigoř politean,
sagaŕ da gaztain, aŕitz, eloři,
uřitz, ta lore taŕtean:
azpi aldean eřekatxoa
marmariaz ostopean,
eguzkiaren azken dizdizak
aruntzko mendi tentean,
kuku ta beste txorien kantak
baso guziak betean;
kabi batean lau txorikume
txilaŕ taŕteko otean.
Gauz aubei danai begiratuaz
emen gure lur maitean,
"iñon ez dago onelakorik"
esanaz nere aŕtean,
netoren eta alako batez
jiratxo bat ematean,
aitonatxo bat arkitu nuen
eserleku arlotean,
berekin zeukan penaren kargak
iya luřera botean.
Garai ta leku pozgaři aŕtan
gixon ura ikustean,
alaitasunez inguratua
ain egoera tristean
bereganatu nitzain zerhait
itzegiteko ustean.

Iruditzen zait gauř orainditan
bera ikusten naguela
aři tontořtxo baten ganean
exerita daguela;
belaun nekatu bien aŕteau
uřitz makil bat duela,
beraren puntan ipiñirik len
buruan zuen txapela,
oraindik ere luř maite ontan
bada zeñek itzegina...
Baña nere itz motxak etziran
bera lasaitzeko diña,
ta zion: —Ondo ikusitzen det
datořkigun eřasua:
ez da biziko, lasteř ilko da
gure euzkera gaxua.

Jauna, ez bedi orla tristetu,
ez dago euzkera juna
¿ez du nabaitzen inguru ontan
daguen alaitasuna?
ez du ikusten ez dala gaitza,
baizik dena osasuna:
Euzkaleřiko txorien kantak
ez dago pozez entzuna?

Bai len bezela sayatzen dira
kukua eta soxua!
oyek or daude, baña galdu da
gure euzkera gaxua.

Jauna, alaitzen asi gindezke
euzkera maite degunak
badatoz, ustez iya betiko
galdutzat zeuden egunak
bi eskuakin gogoř elduaz,
kontu egiñaz onela,
eta kokotza oyen gañean
lotan balego bezela.
Nola iostatzen pil pil zebilen
egoaizetxo epela,
buruko ile txuri bakanak
egara zijoazela
-san zeikean, bere onduan
nabaitutzen etzubela,
antxe negoan bere alboan
zer egin ez nekiela,
laguntzarik nai zuen galdetu
edo aldegin bestela:
itzegin zuben, eta kezkatik
atera nintzan berela.

Asnas lodi bat irten zitzayon
petxu estutik pasua
ta lenbiziko au esan zuben;
¡nere euzkeřa gaxua!

Esan onetan ezaguturīk,
aitonak zedukan miña
erantzun nion: —Jauna-euzkera
ez dago ain aldegiña
len aintzakotzat artzen etzuten
damatxo txapela-dunak
gauř erantzuten dute biotzez:
"gu gerade euzkaldunak".

Baña ainbestek jartzen diote
traba edo arazua...
¡nola nai dezu indařtutzea
gure euzkera gaxua!

Jauna, badaki nola lenago
guk ez genekiyen erderik
eta guraso leyal on askok
umeak argitu nairik
aldi batean ¿nun ikusi da,
izkuntz au gabeko mairik?
Oregatikan dago euzkera
Oregatikan dago euzkera
lotsaz txokoan gorderik.

Bukatu bedi oitura ořen
epea edo plazua
Ixan zazute maitexeago
gure euzkera gaxua.

Jauna, ez beza negaŕik egin!
esan dioten bezela,
ikusitzen du lenago baño
askoz obeto gaudela;
luza lezake txit zala da ta
oso indartzen berela...
Ontan malkoak kolpez kendurik
erantzun zidan onela;
Nik erderarik ez dakit eta
nere ilobak ¡au sua!
ni bezelaxe burlatzen dute
gure euzkera gaxua.

Au mintzatzean arkitu zuen
ain estu bere baŕena,
non altxarikan eserlekutik
atzezaken azkaŕena
esan ziran: ¡Ai...! danak nai dute
lege zaŕak dakaŕena
eta ez dute ezagututzen
izkuntza dala auřena.

Miru gaiztoak menderatatzen
duten bezela uxua
etzazutela iltzera utzi
gure euzkera gaxua.

Eskuarekin aguř egiñaz
arturik makilatxua
etxe aldera abiatu zan
ain euzkaldun doatsua:
geldi geldika jaŕaitu nion
neurtuaz bere pausua
ilobetara biuřtu zedin
aitona gizagaxua.

Jatoř asko agertu zituan pasadizoak, Otaño, bertsolari bikañak. Ta oleřki txukun mamitsu au irakuři ondoren, ementxe gelditu naiz zalantza bizian.

¿Oleřkariak ala aitonak du aŕazoi?

Auda gauřko euzkel-idazlien auzi gaŕantzitsua.

YURRETA

UDAL-ETXIAN.— Lengo asteko batzaŕian ziñegotzijak erabagi eben "Tabaŕna-zaŕa" onduan dagozan zugatzak ken du ta saltzia. Baña be, Enparantzan daguan Ituřibaŕija margoztu ta lengo Abade-etxia bařiztutia. Eta... Kanpo-Santu'ko bidia noizko? Ba, egunen baten eurija danian batenbat, beřtara ořduko, bidian luřperatuko-da.

ABEŘTZALIAI DIDAŘA.—Abeřtzale gustijok gagoz biařtuta irakuřitako izpaŕingijak Batzokira eruateko, mendigoxaliak bidaldu dagijezan Araba eta Nabaŕa-aldeko anayak JEL'pian ixařtu dařezan.

AŘPIDIA.— Euzko-langilen batzaŕan erabagi zan zabaltzia aŕpide edo "suscrisiño" bat batzen dan txindijagaz erosteko emen lan-barik dagozan euzko-langilen jantokijak biaŕ dabezan ontziak erosteko. Zerbait emon al-dabenak sakela zabaldu dagijela.

OSTIKOLARIJAK. — Datořen igandian 11'grn., jokatuko dabe Pausta Deunaren zelayan "Santa Polonia'ko Leoyak" deritxon aldria Malabienataŕen auřka. Gaŕ aundija dago emengo gastien aŕtian euren ostikadak ikusteko ba, Poloniataŕak diñuan lez Yuřeta'ko txapeldun ixan biaŕ dabiela ta ostera bestiak oin-aŕtian eurak nausi dirala ta auřerantzian be jaŕateko asmua daukiela.

Epaikari, entzute aundiko gixona ixango da.

URONDO.

España'k geure azkatasuna; zer nai dauan Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa'k esan; zein bide dau geure Abeři maitia aŕotzen atzapaŕetatik gaizkatuteko artu biaŕ doguna... onetxek eta beste ainbat gauza geyago ondo ezagututia euzkotaŕ gustijok, orixe da aspaldi ontako neure naya, ta ez gastiak itsumustuan euki, batzuk esaten daben iez, "iru edo lau egon ezkero dakigunok naikua da". ¡Ori iñoiz bez!

¡Ze edeŕa ixango litzaken euzkotaŕ gustijok edonon auřian tipi-tapa oř goyan diñodazan gai gustijak esaten ba'lekigu eta jakin onen ganera, adoretsu ta maitasun oso-osuaz maitatu!

Jaŕaťu, ba, asiťako bidiari ene lagun maťiak nekatu barik alan eta gustiz be, lan asko daukagu egiteko ondiño-ta.

Abeřijaren alde lana egiteko zer biaŕ dan? ¡Adoria! ta, geyagorik? ¡Bijotza! egijazko maitasunaz maitatuteko.

Oŕa oř, geugandik iñoiz be, aldendu barik erabili biaŕ doguzan gauza biaŕezko ta edeř, bi.

¡Adoria ta bijotza!

ZEŘTZETA.

EUZKO - GASTEDIJA

Gure elia ta gure Aberria

ARRITOKIETA

VI

Gure ama Euzkadi'k ere bizirik daguala dirudi. Begira auteskunde edo elezioetara. Zenbat kontzejal, zenbat diputadu, zenbat autaŕki edo boto geure alde...

Baña zuazte gure eřietako jolasak ikusten. ¡Ene! ¡Ango dantza nastu zikiñak! ¡Ango belaŕimotzen eresi edo musikak! ¡Ango itz itxusiak edo birauak! ¡Ango lotzagabekeria!

Ni neonek, igande gustietan uste izaten det ama Euzkadi ilda ez-eze ustelduta ere bai ete dagoan.

Gure amaren begirakunea, garbia zan, garbia ta alaya, ez orain daukan begiratu ori bezelakoa. Ori, begirakune ori ez da ba gure ama Euzkadi'rena, il baño lenagotik ez zuan ořela begiratzen.

Zuazte, geuk abeřtzaliok egiten ditugun batzaŕetara, Bilbao'ko Abeři Eguna, Donosti'ko Euzkadi-Europa eguna, Durango 'ko Batzaŕ nagusiera. ¡Ayek notintzat! ¡Ayek geude piloak! ¡Ayek ikuřin edeřak! ¡Ayek gastedi edeřak! Zenbat euzkaldun seme alaba bildu giñan egun oyetan? Irurogei mila? Larogei mila? Eun mila...?

Baña ¡ze euzkera gutxi! Alde gustietan eřdera nagusi.

Ama Euzkadi bai dabil, jo Donostia ta jo Bilbao, jo Lixaŕa ta jo Durango, bizirik dagoala dirudi. Baña ¡ori begiratua! Ez da ori bere begiratzeko era. Begirakunea aldatu egin zayo.

Artu egitzatzute, geuk abeřtzaliok irasi edo sořtu ditugun eguneroko ta asteroko izpaŕingi ed operiódikuak. "Jagi-Jagi", "Kendu", "Amayur" geyenak eřderaz. Iru steroko bakaŕik ezagutzen ditut euzkeraz idatzita eřteten dutenak Gipuzkoa 'ko "Argia" eta Bizkai'ko "Ekin" eta "Euzko" Eurentzat neure biotzeko maitetasuna.

Artu itzatzute geure eguneroko izpaŕ -ingi aundiak: "La Voz de Navarra", "El Dia" EUZKADI Erderientzat, belaŕimotzen izkerentzat, geu bere azpian gauzkazan España lateřiaren elientzat ¡amaika oři! geure elientzat, geure euzkera gaxoentzat oři bakaŕ bat, eta bera osorik ez. Ořitxo bakaŕ ořetan ere eřderari lekutxo bat gorde beaŕ izaten diote.

Bai aldakizute Katalunya'taŕak euren eliaz bakaŕ-bakaŕik, eřderaren tantik gabe idatzitako zenbat izpaŕ-ingi dituzten? "Ogeita amasei uste det."

Ama Euzkadi'k bizirik dagoala dirudi, baña bere begirakune ori etzait atsegin.

Geyago oraindik. Artu egitzatzute EUZKADI ta "El Dia "eta ikusiko dezute Bergara'tik, Eibar'tik, Galdakano'tik, Zarauz'tik, Elořio'tik, Durango'tik, Azpeiti 'tik, Elgoibaŕ'tik, Bermeo'tik, Afasate'tik, Gernika'tik (ez nua geyago esaten) idazkiak edo izpaŕak la egunero, eta danak eřderaz.

Eři bat bakaŕ-bakaŕik dago geure euzkerea idatzi dan danetan erabiltzen duana Bizkaya'n. Ementxe goratu nai det. Eři ori Mañaria da.

Len esan ditutan beste eři oyetatik (eta geyagotatik ere berdin) geyenian idaztiak eřderaz. Abeřiaren alde au egiten dutena, beste ori egin beaŕ dutena, baña euzkererarik ez beintzat.,

Ama Euzkadi'k bizi dala dirudi baña ¡ene! ori begirakunea.

Bilduŕ naiz ba ni, bizirik daukagula uste degun Ama ilda ete dagoan, berbiztu nai izan degunean bere gogoaren ordez, "euzko-gogoaren" ordez, erdal eřien gogoa baŕuan sortu diogulako edo.

Eta baldin au onela ba'da, Aita Mir'ek esaten duan mutil gastea (1) egun batean bat-batera il da erori zan bezelaxe, ta erori ta bat batera usteldu zan bezelaxe —lendik ilda zegoalako—, gure Abeřiak ere egunen batean beya oko du ilda ta usteldu era batera—lendik ilda egongo dalako—eta ez du geyago iñoiz-ez-iñoiz bururik jasoko, iñork berbiztuko ez dualako.

Auxe oldoztu edo pentzatu zuan noski Arana-Goiri'taŕ Sabin'ak, gure abendak edo euzko aŕazak sortu duan gizonik bikañenak oleřki au egin zuanean.

Il nayago dot
Ikusi baño
Abeřijaren amaya.

(Daŕaike.)

(1) Nere Euzko-Gastedi'ko itzaldian esan nuan, gertaera au Aita Mir Josulaunen "El Milagro" izena duan liburu batean irakuři nuala uste nuala, ziuř ez nengoan aŕen, ez nualako astirik izan onela zan edo ez ikusteko. Baña, aŕezkero beaŕ dau aztia, aŕtu al zan detalako okeř egon naizela ikusi det. Ez da ba gertaera au nik aitatu nuan liburuan irakuřia, bezte batean baizik. Ara emen bere izena ta zerzeladak. "El espiritismo moderno", por el R. P. Eustaquio Ugarte de Ercilla, de la Compañía de Jesŕs. 1916. Barcelona, Ramos, editor. Mallorca, 191.

Deunen bixitza

MATILDE DEUNA

Deuntasunak, landeřen txosnan naiz bakaldunen jauregian diz-diz egin leike, bakoitzak bere bizikeran, eginbeaŕak zintso beteta, deuntasun-gorengo malara eldu daiteke-ta. Onetariko bat, Matilde Deuna izan zan. Teodoriko kondearen alaba izan zan, eta 1'go Endika bakaldunaren emazte. Bere gurasoak asiera kistaŕa emon gurarik, Erford'eko lekaimetxera, bialdu eben. Bertako nagusi, bere amandre, Matilde zan, alargundu ta lekaime sartu zana. Toki deun aretan, Matilde'k, berari zegokiozan lanez gañera otoi eta irakurte on zaletasuna ikasi zituan. Bere gogo gustia, une gustietan Jaunaren guraria betetea izan zan. Eresi deunak buruz ikasi eta egunoro belauniko esaten zituan. Berez baŕuko bizitzarako lera sortatzen eban, baña, saŕitan bakaldun sendietan gertau oi danez, bere gurasoak, Endika, gero Alemania ko bakaldun izan zanagaz ezkontza gertau eutsoen. Saxonia'ko duke Oton il zanean, bere ondorengo izan zan, eta 919 'gaŕen urtean, Konrada Alemania'ko bakalduna il ondoren Endika bere tokirako autu eben. Endika, bakaldun jaunzale, kementsu ta menpekoak asko maite zituana izan zan. Eta Matilde Deuna, neskatilatan on zintzo eta eredu izan ba'zan, ezkontzan, emazte maratz, onbidetsu eta eřukior agertu zan. Apaltasunik andienaz etenbako otoitzean bizi izan zan bere biotza beti Jaungoikua'ganantza, zuzenduta erabilen eta. Eta egiñen onetan eguna igaroteari gitxi eretxita, gabaz be aldi luzean gogo-iñarkunetan jaŕaitzen eban. Toki garayetan, gitxitan ikusten dana, luřeko gauzen uskeria, eta galbideak, gero ta obeto ikusten zituan, eta tamalez beteten yakon biotza, olango uskeriei jaŕaitzeaz ainbeste gogo galtzen zirala ikusirik. Jauregiko lauregiko basteř baten bizi, eta esaten ziran Jaupa gustiak entzun ondoren, gexo, lander eta zoritxaŕekoei laguntzen egun gustia emoten eban. Bere poz gustia, gexoak ikertu, txiroei lagunduta Kistaŕ Ikastia irakatsi, atsekabetuak poztu, espetxetuei zorozi, eta zuzentzaren kalte barik azkatasuna jaritxiten lagundu, eta batez be damutasunaren bidez euren biotzak obenpetik ataraten alegintzea izaten zan. Etxerik-etxe gexoak ikertzea be atsegin izaten yakon esku zabalaz lagunduaz, eta bere goi-maitasunaz, ezagutzen zituan zoritxaŕ gustien gain bere ego ongileak zabaltzen zituan. 936'gaŕen uřtean, bere senaŕ bakalduna, burutik berako gexoak jo eban. Samintasunez beterik gure Jaunaren auřean auzpertu ta aŕen Jaunari laguntza eskatu eutson, baña, Jauna'k Beragana deitu eutsola jakin ebaneko, jaupa bat emoteko aginduez gañera, aldean eroyazan bakal-andere apainki ta ezaugaŕi gustiak bertan bera laga-ta, une atatik osoaro luřeko andikeri gustiak alde batera itxiteko erabagia agertu eban. Matilde'k iru seme izan zituan Oton Andia, 937'gaŕenean, Alemania'ko bakaldun autu ebena, Endika, Baviera'ko dukea, eta Burna, Kolonia'ko Gongotzain izan zana. Oton 937'n Eroma 'ko kaisar be autu eben, lonbardar eta boemiataŕak garaitu ondoren. Aldi onetan amaren biotza samintasunez bete zan, bere seme biak, agintaritzagaz yabeta gurarik, buřuka gogoŕa izan ebelako. Auteskundez auzi au ebazten zan eta, Endika, bere seme gasteenaren aldezko agertu zan, eta gero berak uts egin ebala eretxita laztasun gogoŕak egin zituan ordaingaŕitzat. Semien eskartxaŕaren edari mingotza be txastatu eban. Eskuz zabalegiz, lateřiko ondasunak beartsuen aŕtean zabaltzen zituala aukotzat artuta, ala bakaldun-alargun zanez yoakozan ondasunak kendu egin eutsoezan. Kurutze astun au, luzaroan eroan beaŕ izan eban, eta astunago egiten yakon berak ain kutun zituan semeak leporatu eutsoelako. Baña nozbait bere semeok amari egin eutsen bidegabekeria ezaguturik, baŕien-baŕi, kendutako ondasunak emon eutsoezan. Aŕezkero bere bizitza lekaime bizitza izan zan. Len senaŕa bizi zala, neguko egun otzetan, bide ta txaide inguruetan, sutzaŕ andiak biztu eragiten ba'zituan, txiroak euren soin izostuak berotzeko, auřerantzean, gero ta esku zabalagoa agertu eban. Ol baten gañean lo egiten eban, zurdatza beti soñean erabilen, eta biziteko lain bakaŕik jaten eban. Eleiza asko ta bost lekaretxe irasi zituan, eta oneitatik aundiena, Polden'ekoa izan zan, iru mila lekaide bertan bizi ziran eta. Kelinburgo'n egin eben lekaimetxea bere burua eskutau eban, eta bere senaŕaren gorpuzkiñak, bertara aldatu eraginda, aingeruen bizitza egin eban.

Bere azkenego gexo-aldian, Gilelma, Magunzia'ko Gongotzain eta bere iloba agurgaŕiagaz, autorkuntza egin eban, eta beste ondasunik ez ebela-ta, il-kutxa edo zeřaldoa estaltzeko oyal bat bialdu eutson, bera baño lenago ilgo zala adiraziaz. Eta alantxe gertatu zan, etxera yoyala, amabi egun lenago il zan eta.

Azkenez ilteko ordua eldu yakola ezaguturik, eresiak abestuteko agindu eban. Baita bere gurariz, luřean etxunda ipiñi eben; eta antxe bere eskuz buruan autsa ipiñi ta Kurutzeari nun-egiñaz, Jauna'ren gentzaz asetuta, azken arnasa emon eban, 968'gaŕengo epala-14'n. Bere gorpua Kedlimburgo zaintzen da, eta "Martirologium Romanum,,'ek, egun onetan bere izena aitatzen dau.

MITARGA.

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas) — GIPUZKOA